

OHIZKO OSOKO BILKURA

2017.12.27

Tolosako Udaletxean, 2017ko abenduaren 27an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de diciembre de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2017ko azaroaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2. Tokiko poliziaren oinarritzko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 28 de noviembre de 2017.
2. Aprobación del Convenio de colaboración entre la Academia Vasca

sortzeko, polizia eta larrialdietako Euskal akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

3. 2018 urterako taxien tarifen onarpena.
4. 2018ko aurrekontu orokorraren onarpena.
5. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2017ko azaroaren 1etik 30era (2017/1.941-2017/2.156).
6. lurreamendi Egoitzaren 3/2017 kreditu aldaketaren jakinarazpena (2237/2017 Alkatetza dekretua).
7. Galderak eta eskaerak.

de Policía y emergencias y el Ayuntamiento de Tolosa para la creación de una bolsa de trabajo de agentes interinos pertenecientes a la escala básica de Policía Local.

3. Aprobación de las tarifas de taxi del 2018.
4. Aprobación del presupuesto general para el año 2018.
5. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:
Del 2 al 30 de noviembre de 2017 (2017/1.941-2017/2.156).
6. Dar cuenta de la modificación de créditos 3/2017 de lurreamendi Egoitza (Decreto de Alcaldía 2237/2017).
7. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **Ondorengo akta onartzea:**
2017ko azaroaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

1. **Aprobación de la siguiente acta:**
Sesión ordinaria del 28 de noviembre de 2017.

2. **Tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa sortzeko, polizia eta larrialdietako Euskal akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.**

2. **Aprobación del Convenio de colaboración entre la Academia Vasca de Policía y emergencias y el Ayuntamiento de Tolosa para la creación de una bolsa de trabajo de agentes interinos pertenecientes a la escala básica de Policía Local.**

Partehartzeak:

- ... Alkatea: *"Hitzarmena hau sinatzeko proposamena aurkezteak bi arrazoi nagusiak ditu: alde batetik, Tolosako Udaltzaingoa dugun lan poltsa modu efizientean kudeatzeko zaltasunak ditugu. Ez da egoera berria, arrastaka daramagun egoera da. Ondorioz, Tolosako Udaltzaingoa plantilaren egoera. Udalean sortzen diren berehalako beharrei erantzuteko lan poltsetatik agenteak lortzea oso zaila suertatzen da. Lankidetzaren eta hitzarmena sinatzea proposatzen dugu tokiko poliziaren oinarrizko eskala agente plazak bitarteko izaeraz hornitzeko, hau da, oporraldietan, udan edo aurreikusitako ezinezko bestelakoetan.*

Hitzarmenaren ondorioz osatutako lan poltsako hautagaiak trebatuta eta gaituta egongo dira alde zuzenetik prestatu eta gaituko dituelako Polizi eta Larrialdietako Euskal Akademiak. Pentsa, gaur egun adibidez bost agente ditugu Arkauten trebatzen. Gainera, Tolosako udalak gaur egun duen udaltzainen lan poltsa mantentzeko asmoa du, lehentasunik emanik lan poltsa honi. Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da eta aurretik hitzarmena amaitu ahal zango da aldeek edozein momentu hala erabakiko balute. Modu guztietara eta osoko bilkuratik aurretik hitz egin dugu datorren urtean erreposizio tasagatik agente baten lanpostua ateratzeko asmoa da eta lanpostu horretatik aurkezten diren pertsonekin ikusten badugu aukera badagoela lan poltsa bat osatzeko momentu horretan aztertuko genuke hori egitea.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu) . *Gai hau alkateak esan duen bezala ez da berria. Urteak daramatzagu lan poltsak kudeatzen eta udaltzaingoan, gainera, badago mugikortasun bat, hau da, agenteak herriz mugitzen dira eta sortzen diren gabeziengatik. Horretaz aparte, bajak daude, reposizio baten beharra egoten da. Ez da berria. Gure ustez eta behin baino gehiagoetan esan izan dugu Udaltzaingoa oso oso gertuko udal zerbitzua da. Esango nuke herritarrekin zuzeneko harreman gehien izan ditzaken udal zerbitzua dela eta udal langileak dira. Egunerokoan kalean egoten dira eta beraiek dira sarri herritarren kezkek, beharrak eta egoera askotan deserosoak kudeatzea tokatzen zaienak. Eta udal langileak dira. Jakin badakigu, lan poltsa edo reposizio hauek egiteko garaian zailtasunak egoten direla sarri. Baina argi daukazu udal autonomiaren defentsa egiten dugula. Nik uste, hemen gauden guztion nahia udalak ahalik eta eskuduntza gehien izatea dela, ahalik eta baliabide gehienak, erabakiak herritarrengatik gertuena jartzeko instituzioa izanda, ahalik eta botere gehien izatea nahi genukeela. Eta hitzarmen honek udal autonomia urratzen du eta guk sinisten dugun udal indartsu ideia horren aurka doa. Orduan, zailtasunak zailtasun, gure ustez udalak ezin du galdu eskubide hori, betebeharrak hori eta eginkizun hori. Ezin du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia edo herritarrek ulertuko duten moduan, Arkauten esku utzi zeregin hori. Azken finean, pertsona horiek Tolosako zigilua emango dute soinean eta Tolosako udal langileak izango dira eta horregatik nik uste, edo guk uste dugu guk geuk izan behar dugula lan poltsa hori eta udal langile horien aukeraketan parte hartu beharko genukeenak eta eragile inportanteenak. Jakin badakigu eta lehenago hitz egiten aritu garen neurrian, beharrak daudela eta presa dagoela eta dagoen lan poltsa ez dagoela momentuz, berriz hutsa dagoela eta daudenak lanean daudela. Agian, berandu eusten diogu gai honi, agian ,lan poltsa hori lehenago egin behar zen, hitzarmen hau egon aurretik. Izan ere, Udaltzaingoko batzordean, irailaren amaieran, gaia jorratu zen eta bertan, batzuk Pertsonaleko batzordean kontrakoa esan arren, guk kontra bozkatu genuen eta ez alde. Kontra orain aipatu ditudan arrazoi horiengatik. Orduan, guk ez aztertu baizik konpromisoa hartzen baduzue, hau da, promozioa aterako den plaza hortik lan poltsa sortuko dela eta hortik momentu honetan sinatzea aurreikusten duzuen hitzarmena bertan behera geldituko dela abstenitu ginateke. Baina ez ikertuko dugu, aztertuko dugu, guk konpromisoa eskatzen dugu hau urte erdirako behintzat plaza hori atera eta ondorioz, lan poltsa hori, izen emate guzti horien arabera, hitzarmen hau bertan behera geldituko dela eta lan poltsa propioa kudeatuko dugula, guk geuk eta eskuduntza hori gure gain hartzen, gurea delako. Orduan guk ez dugu kontenplatu zuek eskatzen duzuen bezala aztertzea baizik eta konpromisoa. Konpromiso hori hartzen baduzue abstenitu egingo ginateke, bestela kontrakoa bozkatuko genuke. Guretzat udal langileak dira ez poliziak. Eta hemen azkenean poliziaren legetik datorren hitzarmen bat da eta Arkautek ez digu esan behar hemen lan egingo dutenak edo ez. Ez dutelako herriaren inguruko ezagutza izango, ez dituztelako herri kaleak ezagutuko, ezta herritarrek. Ondorioz, zerbitzua zerbitzuak kaxkartzearen aurka gaude. Esan bezala konpromisoa hartzen baduzue abstenitu egingo gara, bestela kontrakoa.”*

... Alkatea: “Zerbitzu kaskarra da ematen ez dena. Orain arte zerbitzu egoki emateko, ni ere

bat nator, udaltzaingoan betetzen duten papera herri guztietan oso inportantea dela, beharrezkoa dela, beraz, dauden uda oporraldi eta bestelakoak eraginkortasunez bete behar dira eta hori ez da gertatzen Tolosako udaletxean. Tolosako udaletxean ez da gertatu, ez orain eta ezta urte batzuetan ere. Hori gabezi estaltzeko Arkautek erramienta bat jartzen digu udalen eskura. Hitzarmen hori sinatuta daukate Gipuzkoako lurraldeko hainbat udalerrik, alkate batzuekin ere hitz egin dut eta eraginkorra dela esan didate. Uda partean izan daitezke zailtasun handiak badirudi Donostik eta Zarauzten asko tiratzen dutelako. Ez litzateke gure kasuan, nik proposatzen dut hitzarmen hau ekarri dugun bezala sinatzea beharrak horrela eskatzen duelako. Eta konpromisoa hartzen dugu agentearen lanpostua ateratzen denean aurkezten diren pertsonen zerrenda aztertzeko. Baina gure proposamena da ekarri dugun diktamena onartzea.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): “Azterkerataren horren baitan ezin dugu gure bozketa abstentziara mugitu eta kontra bozkatuko dut.

GIZA BALIABIDE ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN 2017KO ABENDUAREN 19KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

I.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako udala jabe dira toki mailan tokiko poliziaren oinarritzko eskalako agente plazak bitarteko izaeraz hornitzeak eragiten dituen arazoez, horiek hornitzea beharrezkoa izaten baita bai oporraldietan, oro har, udan edo baita aurreikusi ezinezko baldintzetan edo bestelakoetan ere; nolana ere bitarteko agente horiek izendatu behar izaten dira dagozkien funtzioak betetzeko.

Arazo horri ondo helduko bazaio, bai Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta baita Tolosako udalak ere, elkarlanean bultzatu beharko dute Udaltzaingoko Oinarritzko Eskalako bitarteko agente izateko lan-poltsaren eraketa. Hori horrela, Udalak, lan-poltsa osatzen duten pertsonak bizkor eta eraginkor izendatu ahal izango ditu, beharra sortzen zaionean, pertsona horiek lehendik egongo baitira jada hautatuta eta dagozkien funtzioak ondo betetzeko trebatuta eta gaituta.

II.- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzaren eta koordinazio-mekanismo bateratuak behar ditu, hain zuzen, azken horien ekintza-baliabideak optimizatzeko.

III.- Tolosako udalak 2016 urtean abian jarritako lanpostuen zerrendan hutsik dauden udaltzaingoko bost agenteen plazak hornitzeko hautaketa prozesua oraintsu amaitu da. Hautaketa prozesu horren ondorioz, hori gaudituz duten baina plazarik gabe gelditu diren izangaiekin lan-poltsa bat eratuko da, aldi baterako beharrei erantzuteko.

Halaber, sarri askotan udalean sortzen diren berehalako beharrei erantzuteko lan-poltsetatik agenteak lortzea ez da erraza izaten. Hori horrela, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak tokiko agenteak bitarteko izaeraz hautatzeko eta horiek prestatzeko baliabide tekniko eta azpiegitura nahikoak dituzenez, Tolosako udalak egokia deritza tokiko poliziako

oinarrizko eskalako bitarteko izaeraz agente plazak hautatzeko eta lan-poltsa eratzeko aipatu erakundearekin lankidetzan aritzeko hitzarmena sinatzea.

Hori guztia aintzat hartuta, udaleko Udaltzaingo Saitetik, Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa eratzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Tolosako udalaren artean lankidetzat hitzarmena izenpetzea proposatu da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren izaera eta xedea

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 6. artikulua eta ondorengoek arautzen zuen Euskal Herriko Poliziaren Akademia, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen a) ataleko xedapen indargabetzaileak indargabetu zuen arte.

Lankidetzat hitzarmena izenpetzea proposatu den erakundearen – **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia** – izaerari dagokionean, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20. artikulua, **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Administrazio-izaerako organismo autonomoa dela xedatzen du eta bere helburuak betetzeko berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela** eta 21. artikulua, **segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia dagoela**.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren helburua herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoak ematen jarduten diren edo parte hartzen duten pertsonak beharrezkoa den lanbide-heziketa eskuratzeko baldintzak eta bitartekoak sortzea da eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere eskaintzea, baldin eta, segurtasun publikoko zerbitzuetakoak izan ez arren, interes profesionala badute edo beren jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu.

Bestalde, 15/2012 Legearen 20. artikuluko 3. atalak xedatzen du, **“Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xedea da Gobernuak segurtasun publikoaren arlorako duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatzea, hala Euskal Herriko Poliziari dagozkion arloetan nola babes zibilari eta larrialdi-zerbitzuei dagozkienetan. Horretarako, Euskadiko erakunde erkideei dagozkien eskumenen eremuaren barruan eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun publikoko politika gauzatzen jarduten edo esku hartzen duten giza baliabideen prestakuntza eta, hala dagokionean, hautaketa planifikatu eta kudeatu beharko ditu.”**

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eginkizunen artean daude, besteak beste: (15/2012 Legearen 23. artikuluan)

b) Toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartzeko oinarrizko arauak egitea. Arauok Ertzaintzan beste horien baliokide diren eskala eta kategorietarako ezarritakoen antzeko irizpideei egokituko zaizkie. Orobat, eta batez ere, guztientzako berdinak eta nahitaez aplikatzekoak diren hautaketa-prozesuetako programa,

eduki eta egiturak egitea.

c) Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetako eskaletan eta kategorietan sartzeko aldez aurreko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatu, antolatu eta garatzea, eta Euskal Herriko Poliziako kideen etengabeko prestakuntza eta espezializazioarako prestakuntza antolatu eta garatzea. Horretarako, akademiak, dagozkien administrazioekin batera, kidego horien prestakuntzabeharrianak ebaluatuko ditu aldiro-aldiro. Akademiak toki-erakundeen prestakuntza-zentroei eskuordetu ahal izango dizkiete, hala eskatzen badute, beren menpeko polizia-kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroen eta praktikaldien antolaketa eta garapena.

Hizkuntza-trebakuntzarako ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea Ertzaintzako kideak euskalduntzea lortzeko.

d) Udalerrien mendeko karrerako funtzionarioen prestakuntza-planerarako oinarrizko irizpideak prestatzea, haien garapena koordinatzea eta gauzatzen laguntzea.

e) Udal-jagole edo mugikortasun-agente sartzeko oinarrizko arauak egitea, eta horien prestakuntza-ikastaroak programatu, antolatu eta garatzea. Akademiak hala eskatzen duten tokierakundeen prestakuntza-zentroen gain utzi ahal izango du langile horien prestakuntza-ikastaroen antolaketa eta garapena.

f) Dagokion udalerrriak akademiaren esku uzten duenean, toki-administrazioaren mendeko polizia-kidegoen eskala eta kategorietan sartzeko hautaketa-prozesuak gauzatzea. Era berean, udalerriekin elkarlanean aritu ahal izango da, eta laguntza teknikoa ere eskaini ahal izango die, polizia-kidegoetako funtzionarioen hautaketari dagozkion gaietan. Halaber, udalerriek hautaketa prozesuetarako deialdiak egiten dituztenean, eginkizunak egokiro betetzeko behar dituzten lankidetz-materiala eta laguntza teknikoa eskuratu ahal izango dizkie epaimahaiei.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin izenpetzea proposatu den lankidetz hitzarmenaren xedea – tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa eratzea – beraz, erakunde autonomo horren xede eta eginkizunen artean sartzen da.

2.- Lankidetz hitzarmenaren jardunbidea eta izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetz arautzen ditu, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetz ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetz hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, lankidetz hitzarmenaren xedeari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 3. artikulua 3. atalak, euskal herri-administrazioek eta haien ardurapeko zerbitzuek lankidetzaren, koordinazioaren eta elkarlanaren printzipioen arabera izango dituztela elkarrekin harremanak xedatzen du eta bestalde, 44. artikulua 1. atalak berriz,

segurtasun publikoaren eskumena duen sailak polizia-lankidetzarako hitzarmenak sinatzeko aukera daukala, horretarako interesa duten udalekin, lankidetzarako eta elkarlanerako modu eta prozedurak zehazteko.

Finean, formulazio horiek 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 103.1 artikulua aplikazio zehatzak dira: *La Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la ley y al Derecho.*

Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak, Lankidetzarako hitzarmenak arautzen ditu, ondoko definizioarekin: ***“1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.*”**

No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.

Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.”

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetzarako hitzarmena, 40/2015 Legearen 47.2 artikuluko a) atalean xedaturiko hitzarmen mota izango litzateke, (a) *Convenios interadministrativos firmados entre dos o más Administraciones Públicas, o bien entre dos o más organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes de distintas Administraciones públicas, y que podrán incluir la utilización de medios, servicios y recursos de otra Administración Pública, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, para el ejercicio de competencias propias o delegadas.*)

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasunari dagokionean, 40/2015 Legearen 48. artikulua, bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:

- Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua)

- Hitzarmenak aldean adostasuna azalduz perfektionatzen direla (48.8 artikulua)

Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxieneko materiak 40/2015 Legearen 49. artikulua xedatzen ditu, ondokoak:

a) *Sujetos que suscriben el convenio y la capacidad jurídica con que actúa cada una de las partes.*

b) *La competencia en la que se fundamenta la actuación de la Administración Pública, de*

los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de ella o de las Universidades públicas.

c) Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto para su cumplimiento, indicando, en su caso, la titularidad de los resultados obtenidos.

d) Obligaciones y compromisos económicos asumidos por cada una de las partes, si los hubiera, indicando su distribución temporal por anualidades y su imputación concreta al presupuesto correspondiente de acuerdo con lo previsto en la legislación presupuestaria.

e) Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento.

f) Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes. Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios.

g) El régimen de modificación del convenio. A falta de regulación expresa la modificación del contenido del convenio requerirá acuerdo unánime de los firmantes.

h) Plazo de vigencia del convenio teniendo en cuenta las siguientes reglas:

1.º Los convenios deberán tener una duración determinada, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.

2.º En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.

Beraz, Tokiko Poliziaren Oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa eratzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetzaren hitzarmena, toki araubidearen arloan indarrean dauden aipatu lege-xedapenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen babesean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapitulua, Lankidetzaren hitzarmenak arautzen dituenak, xedaturikoarekin bat egingo da.

Jardunbideari dagokionez, Lankidetzaren hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko gardentasun atarian Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

ESKUMENA.- Lankidetzaren hitzarmen hau onartzeko eskumena Udalbatza Plenoarena da, Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera.

Hau guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak Iñigo Alonso, Joseba Ormazabal eta Cristian Fernandezek aldeko botuarekin eta Iñaki Irazabalbeitia eta Lore

Agirrereren abstentzioarekin, hauxe da eman duen

IRIZPENA

LEHENA.- Tokiko Poliziaren Oinarrizko Eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa sortzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

“LEHENA.– Xedea eta helburua. Hitzarmen honen xedea tokiko poliziako oinarrizko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsa sortzea da, hala behar duten Udal sinatzaileei, premia handiko egoeretan eta kontzeptuan bertan jasotzen den aldi baterako izaerarekin, modu bizkor eta eraginkorrean lan-poltsako pertsonak kontratatzea ahalbidetzeko. Langile horiek aldeztatik hautatu, prestatu eta gaituko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, berezko funtzioetan jarduteko. Kudeaketa eraginkorra eta baliabideak modu hobeezinean erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoko Sistemaren beharrik egoki artatzearekin bateratu behar da, sistemaren kalitatea bermatuz.

Hitzarmen honen helburua, beraz, Udal sinatzaileen eskaerei erantzutea da eta haiei aldi baterako estaldura-zerbitzua eskaintzea, bitarteko-erregimenean, tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agente-plazak betetzeko beharrezkoa denean, kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz eta publikitate, berdintasun, meritu eta ahalmen printzipioekin bat.

BIGARRENA.- Bitarteko agenteen lan-poltsa osatzeko aplikazio-eremua eta pertsona hartzaileak. Lan-poltsa hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetzaren hitzarmen hau sinatu duten Udalek bakarrik erabili ahaliko dute, eta soilik bitarteko agenteak izendatzeko tokiko poliziako oinarrizko eskalako agente-kategorian lanpostuak bete behar diren kasuetan, beharra eta premia behar bezala justifikatuz, karrerako langile funtzionarioekin bete ezin daitezkeenean.

Lan-poltsako zati izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitutako hautaketa-prozesuan parte hartu duten eta hori gainditu duten, eta Akademia horrek berak Arkauteko instalazioetan antolatutako prestakuntza-ikastaroa egin duten pertsonak.

HIRUGARRENA.- Aldeen betebeharrak. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari dagozkion sustapen-lanei eragin gabe, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-prozesu bat deitu du; onartutako eta kanpoan utzitako hautagaien zerrenda onartuko du; kalifikazio-epaimahaiko pertsona titularrak eta ordezkioak izendatuko ditu;

frogak antolatuko eta kudeatuko ditu; gainditu duten pertsonen zerrenda ezagutaraziko du eta hautagaien prestakuntza gauzatuko du.

Hautagaiek hasiera batetik lan-poltsak eskaintzen dituen aukerak ezagut ditzaten, Akademiak hautaketa-prozesuaren deialdia behar bezala iragarriko du, hitzartutako Udalen web guneetan ere argitaratuz.

Bestalde, lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen duten Udalek erabat onartzen dituzte tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako poltsa sortzeko jardute-irizpide hauek:

- Berezko hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak antolatzeari uko egiten diote, polizia-agenteak karrerako funtzionarioztat integratzeko.*
- Segurtasun Sailaren poltsako bitarteko langileak modu eksklusiboan erabiltzeko hitza ematen dute, eta aurkako kasuan, galarazi egiten da ondoren erabiltzea. Horrek esan nahi du berariaz uko egiten diotela beren poltsak deitzeari edo beste tokiko erakunde batzuk deitutako poltsak erabiltzeari.*
- Udal sinatzaileak berariaz jakinarazten duen kasuetan, lan-poltsa hau sortu aurretik existitzen ziren lan-poltsak kideak errespetatuko dira, baina irizpide hori eskatzen duen Udalaren udal-mugartearen barruan bakarrik aplikatuko da.*

1. Aurreko puntuan adierazitakoarekin bat, Tolosako Udalak adierazten du udaltzainen lan-poltsa bat duela, indarrean mantentzeko asmoa duela eta, beraz, lan-poltsa horretara joko duela Segurtasun Sailak osatuko duenera jo baino lehen, hargatik ezertan eragotzi Gabe hitzarmen hau sinatuta bere gain hartzen dituen konpromisoak.

LAUGARRENA.- Jarraipen Batzordea. *Hitzarmena behar bezala zaintzeko, segimendu-batzorde tekniko bat sortu da, lau kidez osatua: bi Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioa ordezkatur eta beste bi dagokion Udala ordezkatur. Lehendakaritza Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioko ordezkarietako batek beteko du.*

Batzorde horren zereginak hauek dira: hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren urratsak aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, hori hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, aldeetako batek horrela eskatzen badu, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

BOSGARRENA.- Hitzarmena aldatzea. *Lankidetzaren hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke, bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa gehituko dizkiote dokumentu honi.*

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta auzigaiak. *Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea bete beharko da.*

Laugarren klausulan jasota dauden Segimendu Batzordeari esleitutako funtzioei eragin gabe, hitzarmen hau garatzean eta egikaritzean bi aldeek artean sor litezkeen liskarrak administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren esku jarriko dira.

ZAZPIGARRENA.- Indarraldia eta amaiera.

Hitzarmenaren indarraldia 4 urteetako izango da aldeek sinatzen dutenetik aurrera, alderdietako batek salatzen ez duen bitartean. Beste alderdiari idatzizko jakinarazpena bidaliz gauzatu beharko da salaketa, hitzarmenaren indarraldia edo luzapenerako epea bukatu baino hilabete bat lehenago, gutxienez.

Aurreko atalean aipatutako epea amaitu aurretik, edozein momentuan, Hitzarmena sinatzen dutenek aho batez luzatu ahal izango dute beste 4 urtez edo baliogabetu.

Hitzarmena amaitu ahal izango da, aldeek edozer momentutan hala adosten badute.

ZORTZIGARRENA.- Erantsitako dokumentazioa. *Hitzarmen honekin batera, ondorengo dokumentuak doaz:*

- *Tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsa hautatzeko prozedura arautzen duten oinarriak eta deialdia (EHAAn argitaratuak 2014ko otsailaren 25ean).*

- *Tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsaren funtzionamendu-sistema arautzen duen arautegia.”*

BIGARRENA.- *Udal honetako Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta berau egikartzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.*

HIRUGARRENA.- *Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko Iragarri Taulan argitaratzea.*

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari eta Tolosako udaleko Kontu-hartzaitza sailari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Abstentzio botoak: , Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **onartu du Tokiko Poliziaren Oinarrizko Eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa sortzeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena.**

3. 2018 urterako taxien tarifen onarpena.

3. Aprobación de las tarifas de taxi del 2018.

Partehartzeak:

... Alkatea: *“Taxi lizentzia duten udal ordezkariak, Tolosaldeko udal orderkariak, proposamena hau osoko bilkuran onartua ahal izateko batzorde moduko bat egiten dugu Alegia, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo ordezkariak, bertan egoten dira baita ere, Argitax, Taxi elkarteak, eta beraiek proposatzen dute tasaren kopurua. Azken urtetan ez da igoerarik egon eta horregatik aurtengoan %1,6ko igoera proposatzen da eta batzorde horretan aho batez onartua izanda.”*

OGASUN BATZORDE INFORMATIBOAREN 2017KO ABENDUAREN 19KO IRIZPENA

“Tolosaldea Garatzen, S.A.ren egoitzan 2017ko azaroaren 28an, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren Agitax taxi elkarteak 2018 urterako aurkeztutako tarifa proposamenak aztertzeke.

Proposamen horren baitan, 2018 urteko tarifak kalkulatzeko 2017koei %1,6ko igoera aplikatzea eskatu dute.

Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, honakoa erabaki zuten .

a) 2018 urterako 2017 urteko tarifei %1,6ko igoera aplikatzea.

b) Ondorioz 2018ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:

- I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):

Gutxieneko tarifa: 4,1049 euro

Kilometroko: 1,0077 euro

Itxarote ordua: 18,2726 euro

- II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7tatik 22tara):

Gutxieneko tarifa: 4,6327 euro

Kilometroko: 1,5330 euro

Itxarote ordua: 26,9164 euro

Laburbilduz, Batzordeak, bertaratutako en alderdi guztien aldeko botoekin, diktaminatu du 2018 urterako 2017 urteko tarifei %1,6 igoetza eta proposatzen du:

Lehena.- Osoko Bilkurak onar dezan.

Bigarrena.- Erabakiaren Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea.

Hirugarrena.- Tolosaldea Garatzen, S.A., entitateari akordioa jakinaraztea tramitatzeko.”

Udaltzatzaiko bozketaren emaitza honakoa izanda :

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala, Cristian Fernandez Susin

Beraz, Udaltzak, aho batez, **onartu du** 2018ko urterako taxien tarifa.

4. 2018ko aurrekontu orokorraren onarpena.

4. Aprobación del presupuesto general para el año 2018.

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun batzordeburuak aurrekontu proposamenaren xehetasunak azaldu aurretik eskerrak eman dizkie Kontuhartzaitzako langileei egin duen lanarengatik. Jarraian honako hau adierazi du: *"Aurtengo aurrekontuak kontuan izan da beti bezala sarrera eta irteerak orekatuak izan behar dutela gastuen banaketa egingo dugu kapitulua: Aurreikusitako sarrerak eta berez gastuak 25.141.371,14 €koak dira. Lehenengo kapituluan jasota daude pertsonal gastuak, aurreikusten dira 8.335.071€, aurrekontuaren %33,10a. Bigarren kapituluan Ondasun arruntak eta zerbitzuetan, aurrekontuko 36;58%a erabiliko da, 9.211.407,38€. Hirugarren eta bederatzigarren kapituluak batera aipatzen dira. Bertan azaltzen zaigu gaur egun zorretan ordaintzen ditugun interesak eta amortizazioak, denetara 1.113.498,33€, aurrekontuen 4,50%. Aipatzekoa da gaur egungo udaletxeko zorra aurkitzen dela 7.274.771,67€tan. Datorren urteko bukaeran, 2018 urte bukaeran, aurreikusten da zorra izatea 6.255.601,36€koa. Laugarren kapituluan transferentzi arruntak, dirulaguntza bezala ezagutzen ditugunak, aurreikusten dira 4.173.956,76€, aurrekontuaren %16,57a. Zazpigarren kapituluan kapital transferentziak. Hor kokatzen dira 198.500€. Bukatzeko 6. kapitulua, inbertsioak. Inbertitu ditugu 2.147.436€, aurrekontuaren %8,52a. Aurten planteatzen ditugun inbertsioak bi inbertsio aundi dira. Bat Frontoiaren obra, hau da, jatetxea eta taberna. Egingo ditugunak dira teilatua berritu, fatxada konpondu, igogailua jarri eta irrigarritasuna bermatu. Kasu honetan, obra guztiei aurre egiteko aurreikusi izan ditugu 575.000 €. Bigarren obra handia Gernikako Arbolaren urbanizazioaren 2. fasea da. Orain dela urte batzuk lehenengo fasea egin zen eta bigarren fase honetan aurreikusten da Frontoia eta Vasconiaren arteko anbulategiko sarrera hori urbanizatu. Obra hau Alondegiarekin lotu ez gero eremu osori erabat urbanizatuta edukiko genuke. Horretarako bai obra, bai proiektua eta bai zuzendaritza exekutatzeko aurreikusita daude 600.000€. Ezin dugu ahaztu beste obra handi bat ere badagoela hurrengo urtean garatuko dena eta azaltzen ez dena aurrekontuetan ez doalako lotuta 2018. urteko aurrekontuekin, Gudari kaleko urbanizazioa. Orain dela pare bat hilabete egin genuen kreditu aldaketa 500.000 €koa obra honi aurre egiteko. Horretaz aparte, beste hainbat inbertsio daude lotuta joan den urtean egindako inbertsio batzuekin. Kasu honetan, daukagu, adibidez, Haur parkea, konpontzeko aurten jarri ditugu 61.500€, zati bat erabiliko da mantenurako eta beste zatia inbertsioetarako erabiliko dira. Joan den urtean jarri genituen 50.000€. Hau da, egin beharko duguna da urtez urtea pixka-pixkana garatzen joan. Bestalde, Olarraingo arrapalak eta eskailerak egiteko 50.000€ erabiliko dira. Joan den urtean aurreproiekturako 6.000€ jarri izan zen eta aurten proiektua aurrera eramaten dugu. Amarotz Auzoetxe aurreko estalperako ideia lehiaketa bat ireki da horrela eskatu dutelako bertako bizilagunek. Ideia lehiaketa eta proiekturako 60.000 € jarri dira. Joan den urtean jarri izan genituen 50.000€ egiteko Auzoetxe eta Dispentsarioaren proiektua. Aurreikusten da proiektu hori bukatuta egongo dela urtarilaren inguruan eta bizilagunekin adostu ondoren kreditu aldaketaren bitartez hurrengo urtean aurrera eramatea. Horretaz aparte, inbertsio berriak daude lotuta ez daudenak beste urtetako inbertsioekin. Horien artean, aipatu ditzakegu San Esteban auzoan egingo diren obra batzuk, bizilagunekin hitz egin ondoren: errepidea asfaltatzea, espaloiak eta etxeen tarte hori konpondu eta argiteria berritzea. Horretarako jarri ditugu 60.000€. Horretaz aparte, urtero bezala landa auzoetan 75.000€ jarriko dira. Joan den urtean 15.000€ igoera jarri genuen landa auzoetan eta aurten ere mantendu egiten dugu diru kopuru hori. Bertakoekin adostu da proiektua aurrera eramateko. Beste proiektu berria bat da Elkargune*

bezala ezagutzen dena, Gorosabelean irekiko dena. Horretarako gure inbertsioa 35.100€koa da. Diru aldetik ez du ematen beste munduko inbertsiorik baina emango den zerbitzua izugarria izango da. Elkargunea toki neutral bat da, non guraso eta seme-alabak gurasoak bananduak daudenean erabiltzen dute elkargune bisita eskubideak nekez betetzen direnean erosoago izateko lekua. Samaniego eskolako obretan ere 60.000€ inbertituko ditugu teilatuan lehenengo fasean eta Hezkuntza sailari dirulaguntza eskatuko zaio. Jarraituko dugu beste inbertsio batzuekin direla bideo paneletan eta karparekin. Aurten ere Iturriza jauregiko azkenengo ordainketa egingo da, 139.100€koa, eta horrela pasako da gure jabetzara. Horiez aparte, aurten beste berrikuntza bat aurrekontutan azaltzen da, izaera hainbat inbertsioak deitzen zaiona, azkenean dira planeamenduak proiektuak eta aurreproiektu ezberdinak. Jarri dugun inbertsioa 200.000€koa eta hor egin nahi duguna da, esate baterako, azterketa eta proiektuak bide publikoaren azterketa, udaletxeo klimatizazioaren sistemaren proiektua, Soldadu kaleko proiektua eguneratzea, Laskoain kaleko aurreproiektua, Gorosabel kaleko obraren aurreproiektua eta baita ere lehen aipatu izan ditudan Gernikako Arbolaren 2. fasea eta Amartz auzoetxeko aurreko estalpea. Horretaz aparte, planeamenduaren barruan aurreikusten da San Esteban auzoaren azterketa sakon bat egitea. Gaur egun Tolosan hazkunde gunerik inportanteena gelditzen zaiguna da eta nahiko genuke 2009an egin zen plan orokorra, 2014n errebisio partzial bat egin zena aurreko legealdian, ezin da oraindik ezer aurrera atera eta nahiko genuke beste azterketa sakon bat egin, mahai gainean jarri dauden aukera ezberdinak, etxebizitzak, ekipamenduen beharrak, kontsolidatuta dauden aparte, eta aztertzea posible bada eremua garatzea faseka eta ez dena batera.

Inbertsioa hauek aparte, sail ezberdinetan akzio eta planak urtero egiten direnak eta denak daukate bere kreditua. Urteroko ekintza planez gain berriak ere badaude. Horietako bat, guretzat oso inportantea dena, garapen ekonomikoarekin lotuta. Dirulaguntza lerro bat ireki dugu 10.000€koa enpresei laguntzeko, lehiakorrak izatek, kontutan hartuta udaletxeak daukagun eskumenak bide hau ikusi dugu gure laguntza eskaintzeko. Horrez aparte, Lanbide Heziketako feria egiteko partida indartu egin da. Orain arte 3.000 €koa izan da eta aurten 5.000€ jarri dugu. Merkataritza munduan hiru azoka guneen azterketa egingo da, gaur egungoa aztertu eta etorkizunari begira nondik nora jo behar dugun. Berdintasunaren mahaiari, adibidez, Emakume Etxearen partehartzaile prozesu bat martxan jarriko da datorren urtean. Gardentasunaren arloan administrazio modernizazioarako eta berrikuntzarako 30.000 € jarri dira. Herritarren partaidetza sustatzeko beste 32.000 €. Eta baita ere, gardentasunen munduan teknikoei eta politikoei formakuntza emango zaigu. Hezkuntza eta euskararen mailan, euskararen erabilerako Aktibazio programa, 365 egun programarako, 8.000 € jarri ditugu. Ingurumenean udalerrri ekosistema aztertuko da. Arreta juridikoa sexu bortizkeri kasuetarako, 4.500€. Auzolandegirako 6.000€ eta Tolosako Gazteen topaketarako 2.200€ e.a. Azkenean, ikusten dugu aurrekontu hauetan daukagula bai inbertsio handiak, obra handiekin lotuta daudena eta beste inbertsioak diru aldetik hain handiak ez direnak baina bai inportanteak. Adibidez, Elkargunea, proiektuak, aurreproiektuak, sail bakoitzean daukagun ekintza berriak eta ohiko ekintzetan edo jardueretan kreditu igoera. Gero daukagu beste batzuk aipatzen ez direnak baina inportanteak direnak laguntzen ditugulako gure eguneroko ongizatera. Horietako batzuk dira hainbat urbanizazio partida, aurten beti bezala 120.000 € jarri dira eta kasu honetan hemen erabaki nahi duguna da lurramendi pasealekua konpontzeko dagoena, lurreko zubitik hasi txaletaren luzera osoa, hor zuhaitzak eta harresi artean dagoen espaloia txikituta dago. Bestalde, Zuloaga auzoan barandak eta pasadizoak atondu eta beste hainbat urbanizazio txiki. Badago bat beste partida mantenu eta irisgarritasunerako, urtero 200.000€ jartzen dira. Kasu honetan, guk planifikatu dugu San Blas ermitatik kanposantura doan bide hori dena konpondu. Garbigunea joateko kamio asko pasatzen dira eta bidea egoera on batean ez dago. Horretaz aparte, San Frantzisko pasealekuan, Eroskiko pasarelatik ezagutzen dena, Pedro Tolosa pasealekuraino konpondu. Baita ere, autobuseko parada batzuk aurreratu,

hau teknikoek deitzen diote belarri batzuk ateratzea. Konpondu nahi ditugunak dira Kiroldegiko, Paper Eskolako eta Belaten dauden paradak. Horretaz aparte, luzetik zetorren beste eskaera dago, Barrenako pasoa zabaldu. Kasu honetan da Rondilla eta Barrena kalea konexioa egiten duenean belarri bat egiteko suhiltzaileak sarrera zuzen bat eduki dezaten. Gainera, sarrera zuena edukiko lukete Aroztegieta eta Errementari kaleak. Hauek dira momentuz sartu genitzakeen ekintzak eta inbertsioak. Urtero esaten dugun bezala kreditu aldaketaren bidez kreditu eta inbertsio gehiago sartuko ditugu momentu honetan dirusarrerak mugatzen gaituztelako. Zuen ekarpenak jaso genituen eta, komentatu genizuen bezala, aurreikusten ditugu hainbat proiektu eta hainbat eskaera gure zerrendetan ere sartuta zeudelako eta beste batzuk ez, joango dira kreditu aldaketetan. Pentsatzen dugu aurrekontu hauek direla joan den urtean bezalakoak, orekatuak, landuta daude, planifikatuta daude, arduratsuak eta partekatutak.”

- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu):*”Aurrekontuak tresna tekniko gisa udal baten eguneroko jarduera ahalbideratzen dute eta zentzu horretan ez dugu jarri zalantzan inongo momentuan aurrekontu hauen egokitasuna. Izan ere, jakin badakigu Tolosako udaleko langileen profesionaltasuna itzela dela. Baina aurrekontuak, urtero errepikatzen ari garen bezala, tresna politikoak ere badira. Eta gaurkoan guk alderdi politikoetako ordezkariok, herritarrak aukeratuak izan garenok, 2018rako proposatzen ditugun proiektu eta inbertsioak bildu beharko lituzketen aurrekontuak eztabaidatu eta adostu beharko genituzke. Baina behin eta berriz errepikatzen duzuen kreditu aldaketaren tresna hori edukita zuekin ezer eztabaidatu eta adostea oso zaila edo jada ezinezkoa bilakatzen ari da. Gure ustez, aurrekontu hauek ez dute urteko osoko plangintzarik jasotzen, obrak bai, baina tolosarrek obrak gain bestelako beharrak ere badituzte eta, gure ustez, aurrekontu hauek tolosarren beharrei ez diete erantzuten. Azken batean, edukiri gabeko aurrekontuak direla esango genuke. Zuek ere aldarrikatzen duzue zuen kudeatzeko ereduak demostratzen du aipatu ditudan ezaugarri hauek. Aurten ere, 2017an, hamabost kreditu aldaketa burutu dituzue. Pentsa zer aurrekontu aurkeztuko zenituzten iaz hamabost aldiz aldatu izan behar badituzue diru kontuak zuek nahi izan dituzuen bezala. Eta gainera, hobeto esanda, alkateak nahi izan dituen bezala, hemendik jarri, hemendik kendu, alkateak bere eskuduntza baliatuz, bere bulegoan sinatu eta aurrera. Gure ustez momentuko presio hori erantzunez eta inprobisazioz. Modu honetan oso zaila da Udalaren diru kontuak eztabaidatzeko aukerarik izatea, ez proposamenik egitea, ez eta partehartzeko aukerarik izatea. Inkuso gardentasuna zalantzan jarritz. Guk kudeaketa eredu honekin ez dugu inondik inora bat egiten. Hala ere, eta zuk aipatu duzun bezala, oposiziotik, EHBilduk aurrekontu proposamen hau osatzeko asmotan zenbait ekarpen luzatu genizkizuen. Gure ustez ez Tolosak, ez tolosarrek ez dituztelako edukirik eta plangintza gabeko aurrekontuak merezi. Zentzu horretan, aurkeztu genizkizuen lau ataletan bereizita ekarpen batzuk, irizpide orokorrak, konpromisoak, inbertsioak eta bestelako gastuak jasotzen zituztenak eta gero oker ez banago bozkatzeko aukera izango ditugunak. Irizpide orokorreari atalei zegokionean planteatzen genuen, alde batetik, Enplegu programak isla izatea aurrekontu hauetan, jakin badakigulako egingo dela, eta nolabaiteko indartze bat suposatzen duelako aurrekontuetan isla izatea. Bestalde, Langileen soldataren igoerak aurreikusteak eskatzen genuen jakin badakigulako etorriko direla eta, azken finean, eurek direlako udal honen ezinbesteko baliabide. Bigarren atalean, planteatzen genizkizuen konpromisoak izendatu genituenak, San Esteban auzoa berritzeko plana. Aipatzen duzue bestelako motatako azterketa burutzea eta horretarako diru ekarpena egiten duzue baina, gure ustez, auzo honek asko itxoin du eta ezin du gehiago itxoin. Orduan, nolabait proposatzen genizuen egutegi edo epealdi bat adostea. Lehenengo sei hilabeteetan eskuartean izan eta 2018ko aurrekontuan isla izan zezan horren exekuziorako. Bigarren konpromisoa Olarrain auzoari dagokiona. Iaz ere proposatu zitzaizuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egiten hastea Azpeitiko errepedeko*

bide gurutze hori txukuntze aldera, biribilgune bat egiteko proposamenarekin eta Aldundiak 2019ko bere azpiegitura planean sartzeko tramiteak egitea. Eta bien bitartean, 60.000 €ko partida barneratzea, azken batean, Olarrain auzoa Tolosako sarrera inportantenetako bat da oso zaindua ez dagoena eta planteatzen genuen itxura txukundu eta segurtasun ikuspuntutik interbentzioak egitea. Bidegorrietan oinezko asko ibiltzen dira eta arrisku handiko gune da.

Hirugarren konpromisoa da Etxebizitza Planari dagokiona . Proposatzen da 60.000€ partida jartzea bai hausnarketa teknikoak egiteko eta plana bera gauzatzeko. Iruditzen zaigu beharrezkoa dela benetan Tolosarrok izan ditzaken etxebizitza beharrei inguruko azterketa burutzea eta horretarako planteatzen da 18.000 € eta beste zatia 2015. urtean martxan jarri zen etxebizitza plana eta oker ez banago aurten 2017an esleitu diren alokairuzko etxebizitzak sustatzeko plan bat diru partida jartzea.

Laugarrena, Apeaderoaren irisgarritasuna bermatzea. Inguru hori abandonatutako ingurua izanda eta urbanizazio txukuntzeko obra horien ondorioz izan daiteke momentua gairi eusteko. Planteatzen genizuen beharrezko tramiteak egiten hastea eta beharreko balitz udalak dirua aurreratzea inbertsioetan horri aurre egin ahal izateko, irisgarritasuna bermatzeko.

Hurrengo konpromisoa izango litzateke Usabal kirol gunearen 3.fasea deitzen dioguna. Nolabait bat-bateko erabakiak hartu eta gauza berriak jartzen hastea baino egokikoa iruditzen zaigu azterketa teknikoak burutzea benetan kirol ikuspuntutik Tolosak izan ditzaken beharrak modu partehartzaile batean aztertzeko. Horretarako proposatzen genizuen 18.000 €ko partida irekitzea.

Eta konpromisoekin amaitzeko RC2 gunea edo Gorriti plaza eta Enperadore kalea elkartzan diren gune hori. Gipuzkoako urak ahalbideratu duela exekutatzan hastea berritzeko aukera eman duenez, eskatzen genuen partida irekitzea.

Inbertsio puntual eta zehatz batzuk ere proposatu ditugu hirugarren atal gisa:

Elosegi parkearen hurrengo fasea gauzatzeko diru partida jartzea.

